

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **58/2022 Mozioa, ekainaren 8koa, Arabako Lurralde Historikoko pertsona nagusien premiak aztertzea eta haiek ondo artatzea bermatuko duten baliabideak ematekoa**

Arabako Batzar Nagusiek, 2022ko ekainaren 8an egindako osoko bilkuran, mozio hau onetsi zuten:

58/2022 Mozioa, ekainaren 8koa, Arabako Lurralde Historikoko pertsona nagusien premiak aztertzea eta haiek ondo artatzea bermatuko duten baliabideak ematekoa.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Arabako Lurralde Historikoko pertsona nagusien premiak aztertzen jarrai dezala, haiek ondo artatzea bermatuko duten baliabideak Arabako erakundeen bidez emateko helburuarekin, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean ezarritako erreferentziako eskumen-esparrua oinarri hartuz.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Gizarea arreta-eredua, egoiliarren, familien, profesionalen eta komunitatearen arteko harremanetan oinarritzen dena, ezarri eta garatu dezala, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen menpeko zentroetan eta zerbitzuetan pertsonen ematen zaizkien zaintzak hobetzeko helburuarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 8a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**